

Galdera

Orain arte, **asebetetze-inkesta** erabili dugu, baina batzuk erabiltzen ari dira **asetasun-inkesta**. Zein da aukerarik egokiena?

Erantzuna

gogobetetasun(-)inkesta

1/ Euskaltzaindiko baliabideetara jota, ez dugu aurkitu **asebetetasun** hitza, ez Euskaltzaindiaren Hiztegian, ez Orotariko Euskal Hiztegian ere; bai, aldiz, **gogobetetasun**:

gogobetetasun

iz. Gogobeterik dagoenaren egoera.

Halaber, **asebete** (>asebetetze) eta **gogobete** (>gogobetetze) begiratzuz gero, emaitza hauek ematen dizkigu Euskaltzaindiaren Hiztegiak:

asebete¹, asebete, asebetetzen

1 da/du ad. Guztiz ase. Ik. [ase eta bete](#); [ase-ase egin](#). *Asebete arte edan. Esnez asebeteta, loak hartu zuen.*

2 da/du ad. Gogoaren edo espirituaren beharrak erabat bete. *Euskararen egoerak ez nau asebetetzen. || Jainkoa zure gogoa asebetetzen ari da.*

gogobete, gogobete, gogobetetzen

da/du ad. Gogoa bete, ase. (*nor osagarria beti pertsona*). *Neurtitz mota horrek ez zuen gogobetetzen.*

Ikusten denez, **asebeteren** lehen esanahia fisikoa da: esate baterako, euskal ezteietako oturuntza eder baten ostean sentitzen duguna. Horren abstrakzioz dator bigarren esanahia, zalantzari dagokiona. **gogobetek**, ordea, esanahi abstraktua du edozein kasutan: ezin dio erreferentziarik egin tripakadei!!

2/ Euskalterm terminologia bankua ezinbesteko erreferentzia da halako esanahi bereziko terminoen kontuetan. Hauxe topatu dugu bertan:

eu **gogobetetasun-inkesta** ⁽⁴⁾

bezeroaren gogobetetasunari buruzko inkesta ⁽⁴⁾

Definizioa

Produktu baten xede-bezeroak produktuari buruz duen gogobetetzea neurtzeko erakundeak edo, haren izenean, beste norbaitek egiten duen inkesta.

es encuesta de satisfacción

encuesta de satisfacción del cliente

[Kalitatea Hiztegia] [2015]

⁽⁴⁾ zenbakitxoak esan nahi du terminoa behin-behinean dagoela normalizatuta edo gomendatuta baina Terminologia Batzordearen onespeneren zain dagoela.

3/ Interneten “kata” arin bat eginda, emaitza hauek aurkitu ditugu erabilera-kantitateari dagokionez:

asebetetasun-inkesta: 9 emaitza
asebetetze-inkesta: 3370 emaitza
gogobetetze-inkesta: 6840 emaitza
gogobetetasun-inkesta: 8280 emaitza

Hortaz, gure proposamena:

gogobetetasun(-)inkesta